

HILOBI-KUTXAK ZEIN KUTXA-GORDAILUEZ ETA ERRAUTSETARAKO KOLUNBARIKO HILARRIEZ OSATURIKO MULTZOAK SAN JOSÉ UDAL HILERRIAN SALTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ARAUA

11. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluako 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Arau honetan ezarritako prezio publikoak hilobi-kutxak edo kutxa-gordailuak eta errautsetarako kolunbarioko hilarriak osaturiko multzoa erosten dituztenek ordaindu beharko dituzte.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

3. artikulua.- Prezioa Udalaren Diruzaintzan ordainduko da. Hilobi-kutxak edo kutxa-gordailuak eta hilarriak osaturiko multzoa prezioa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu eta gero emanen zaio erosleari. Justifikaturik badago, prezio publikoa multzoa eman eta gero egindako hileko likidazioetan jaso ahalko da.

Tarifak

4. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen Eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- HILOBI-KUTXEN SALMENTA	
- Mandalay kobrezko hilobi-kutxa	45,80 euro
- Kutxa gordailuak eta hilarriak osatutako multzoa	204,50 euro